

AMETS ON BAT.



(ON ALFONSO MARÍA ZABALA NERE ADISKIDE APAIZ PREDIKARI
GAÑ-GAÑEKOARI DONEKITUA.)

Beste asko bezela,
Jarri zan pensatzen
Gazte bat, zoriona
Nola zan iristen.
Galdetu zion, bada,
Bere buruari:
—¿Ongi izateko da aski
Dirua ugari?
—Ez; gizon aberatsak
Ikusi ditut nik
Atsekabe, pena ta
Tristuraz beterik.—
Berriz galdetu zion:
—¿Ote da jakintza,
Mundu onetan ongi
Bizitzeko gauza?
—Ez ez; jakintsu asko
Ditugu ikusi,
Miserrapean eziñ
Diradela bizi.
¿Ote dira benturaz
Atsegiñ loituak?
—Ezta; uzten dituzte
Aztarna mintsuak:

Galdutzen osasuna,
Bizia laburtzen,
Eta biotza dute
Naigabez betetzen.
—¿Zér da ¡milla aingerua!
Bada zoriona?...—
Egunoroko aren
Pensaera, ona.
Egin zuan onetan
Amets bat argiro,
Aingeruen besotan
Zegoelarik lo.
Iruditu zitzayon,
Ibairen ertzean
Arkitzen zala, oian
Orritsu batean.
Agertu zitzazkion
Iru neskach garbi,
Ederragorik ez da
Iñon sortu noski.
Aurretik zijoana,
Soiñ zuriz jantzia,
Liraña ta galanta,
Zan chit egokia;

Estalirik kopeta
 Begiak bendakin,
 Liburua zeraman
 Eskuan berekin.
 Besteak zuan berriz
 Eskuan aingura,
 Eta bertistearen¹
 Kolorezko soña:
 Isuritzen zitzaion
 Parriska zan asko
 Begiratzen ziona
 Bereganatzeko.
 Azkenekoak ona
 Zuan aurpegia,
 Biotz biguña eta
 Gogaberatia:
 Suteozko² mantua
 Zuan soñekotzat,
 Zeukalarik eskuan
 Giltza gisako bat.
 Arriturik gazteak
 Egin zien galde:
 —Ume Jaungoikozkoak,
 ¿Nortzuek zerate?
 —Ni naiz Fedea,—zuan
 Eranzun lenenak.
 —Ni berriz Esperantza,—
 Parrez, bigarrenak.
 Eta irugarrenak
 Esan zuan berriz,
 Zizpiru egiñaz:—ni,
 Karidadea naiz—
 Orduan gazte ura
 Mintza zan onela:
 —¡Jaunak bedeinkatuak
 Izan zaitezte!

Zertara neregana
 Etorri zerate?
 Benturaz zerbait esan
 Nai aldidazute?
 —Bai,—eranzun zioten,
 —Gatoz zuregana,
 Eskeintzera billatzen
 Dezun zoriona.
 —Egiaz, irichiko
 Aldet zuengandik?—
 —Ez dezazula izan,
 Gaztea, dudarik.
 —Milla esker orduan
 Dizutet ematen,
 Eta zuen eskeintza
 Pozik det artutzen.
 —Bada, munduan izan
 Liteken neurrian,—
 Zioten esan neskach
 Garbiak abian,
 —Izango zera beti
 Doatsu lurrean,
 Tokirikan badegu
 Zure barrenean;
 Eta gero ¡ai! iltzen
 Zeraden orduan,
 Arkituko zerade
 Justoen lekuan.
 —¡Birtute zerutarrak!
 Orainchen bertatik
 Sartu zaitezte, ona
 Biotza zabalik;
 Ona nere anima
 Eskeñitzen gela;
 Zuen bizilekua
 Beti izan dedilla.—

(1) Esmeralda.— (2) Púrpurua

Fedeak zion esan	Zabalduko an goian
Orduan pozikan:	Zeruko atear,
—Nik zaitut eramango	Eta zure anima
Lore tartetikan;	Da zorioneko
Dizut bide okerrak	Argiz koroatua
Ikuseraziko,	Izango betiko.—
Eta perilletatik	Utzirik aingeruak
Zaitut libratuko.	Bere besotatik,
—Nik, dizut,—esan zion	Esnaatu zan galaia
Berriz Esperantzak,	Lo goiso artatik.
—Nik, apainduko argiz	Itsatsi zitzaiozkan
Bidearen mugak:	Bere biotzean
Zure biotzean det	Aen itzak, non untzak
Ereingo pakea,	Pareta zarrean.
Izan zaitezen aur bat	Etzuan zorionik
Ezin ta ohea.—	Billa geroztikan
Karidadeak zion	Diru, jakintza eta
Esan azkenean:	Gozamen zorotan,
—Nik berotuko zaitut	Baizik miragarritzok
Nere magalean:	Iru birtuteak
Biraliko dizkitzut	Izandu ziran aren
Zizpiru loreak;	Lagun chit maiteak.

*Egiazki doatsu
 Nai duenak izan
 Ichedon beza iru
 Birtute oetan:
 Zeren, soseguz bizi
 Ondoren munduan,
 Jaunak dio saria
 Emango Zeruan.*

OTAEGI-KO KLAUDIO.

Ondarribian, Burullean, 1887-an.

